



## **DEIALDIA, AZPIEGITURETAKO ZERBITZUBURUAREN 1 PLAZA LEKUALDATZE-LEHIAKETA BIDEZ BETETZEKO, UDALAREN ETA HAREN ERAKUNDE AUTONOMOEN ZERBITZURA ARITZEKO**

### **DEIALDIA BETE GABE DEKLARATZEA**

Giza Baliabideetako Alorreko zuzendariak honako ebazpen hau onetsi du 2026ko otsailaren 16an:

Bat etorrita Iruñeko Udalaren eta haren erakunde autonomoen zerbitzura aritzeko azpiegituretako zerbitzuburuaren 1 plaza lekualdatze-lehiaketa bidez betetzeko deialdiaren laugarren oinarriarekin, zeina Iruñeko Udaleko Giza Baliabideetako Alorreko zuzendariak 2025eko abenduaren 1ean emandako ebazpenaren bidez onetsi eta 2025eko 251. Nafarroako Aldizkari Ofizialean, abenduaren 18koan, argitaratu baitzen, eta behin amaituta eskabideak aurkezteko epea, inork ez du izena eman lekualdatze-lehiaketan. Horrenbestez, EBATZI DUT:

- 1.- Deialdia bete gabe deklaratzeari.
- 2.- Agintzea ebazpen hau argitara dadila Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta Iruñeko Udalaren [www.pamplona.es/eu](http://www.pamplona.es/eu) webgunean.

Ebazpen honen aurka honako errekurtsio hauetako bat paratzen ahal da:

- a) Berraztertze errekurtsioa, egintza gauzatu duen organoari zuzendua, hilabeteko epean, ebazpen hau jakinarazi edo argitaratu eta biharamunetik aitzina.
- b) Gora jotzeko errekurtsioa, Nafarroako Administrazio Auzitegiari zuzendua, hilabeteko epean, errekurritutako egintza edo erabakia jakinarazi edo argitaratu eta biharamunetik aitzina.
- c) Administrazioarekiko auzi-errekurtsioa, Administrazioarekiko Auzien Iruñeko Epaitegiari zuzendua, bi hilabeteko epean, errekurritu nahi den egintza edo erabakia jakinarazi edo argitaratu eta biharamunetik aitzina.

Iruñean, 2026ko otsailaren 16an.- Giza Baliabideetako Alorreko zuzendaria, Xabier Burgui Vergara.